

## KONTROL MOZIOA

### **Kontxako barandaren zati berriak motz geratu direla eta**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko apirilaren 8an Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Kontxako baranda historikoaren berriztatzea polemikaz jositako bidea suertatu da. Balore historiko eta sinbolikoaz gain operazio honek guztiak itsas ondoko paseoaren segurtasuna ziurtatzea izan du helburu, ez da beraz, obra merkea. Pertsonak babesteko neurrien garrantzia argi edukita, egoera ulertezinen aurrean, alde sinbolikoak ika-mika ugari sustatu ditu. Izan ere Kontxan egon diren baranda zatiak (edo ukitu ez diren zonaldeetan daudenak) duela 100 urte Juan Rafael Alday udal arkitektoak diseinatu zituen eta bere agindupean jarri ziren berberak dira; alegia, jatorrizko piezak.

Lehendabizi, Kontxako baranda ondarearen parte den aldetik zer nolako trataera eman izan zen kezka nagusia, babesteko neurriak egongo zirela argi eta garbi aipatzen ez zelako, 2017ko martxoaren lehen hamabostaldian zabaldu ziren argazkiek ikara sortu zuten unean: Kontxako Erlojuetako ingurua guztiz birrindua agertu zen induskatzeko makinaren ondoan. Molde berri bat egingo zela, zatiak aluminiozkoak izango zirela,... Eta kezka berriak sortu ziren molde berriaren egokitasunaz, materialez eta abarrez. Eta proposatu genuen Kontxako elementu babestuen inguruan adituen iritzia jasotzea, Ondarearen Inguruko Foroan eta Gipuzkoako Foru Aldundian, eta honek ere ez zuen jaso Udal Gobernuaren onspena.

Bigarrenik, baina aurrekoarekin batera, aipamen berezia izan zuen Kontxako Erlojuetako zatien artean dagoen berezitasunak: paseoko zati guztiek duten lorea barrura begira dagoelako, baina parte horretan itsasoari begira dagoen lorea duen zatia dagoelako, eta horregatik bereziagoa da. Gobernu ordezkaria azaldu zuen jakitun zela zonalde horretako berezitasunaz, baina nola berrituko zen, molde bera ezin erabilita, oraindik ere erabakitzeke zegoela. Orain dioenez, leku berean jarri da. Aldiz, pasa den apirilaren 8an Donostian hizlari izan zen aditu batek loretxoa bere lekuan ez dagoela publikoki berretsi du (Fernando

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Espinosa de los Monteros, arkitektoa eta ICOMOS ISC20C delakoan presidenteordea, autoritate bat, alegia, Donostiako hiritarren merezimenduzko domina duen ANCORA elkarteak gonbidatuta etorria). Gogoratu ere egin zuen jatorrian hiru lore zirela itsasoari begira zeudenak. Okasio ederra du beraz, orain Donostiak galdutakoak berreskuratu eta berritze fase honetan berriz hiru loreak bere lekuan jartzeko. Horrek, noski, hasieratik esan genuen moduan dakienari galdetzea eskatzen du.

Hirugarrenik, kendutako piezen etorkizunak ere hizpiderako eman zuen, iritzi eta haserre ugari barne. Apirileko udalbatzarrean bertan proposatu genuen elementuen inbentarioa egitea, jatorrizko piezen jarraipen egokia ziurtatze aldera eta eskariak egongo zirelakoan, banatzeko modu egokiaren aurreikuspena behar zela iragarritz; baina Udal Gobernuak ez zuen aintzakotzat hartu eskaera. Aurreikusi genuen moduan, jatorrizko piezak eskuratzeko eskaerak iristen hasi ziren eta denok gogoratzen dugu eman zen lehena: Lepeko Udalarena, 100 urteko barandaren 100 metro.

Pentsatzekoa zenez helburu ezberdina baina antzeko interesa izan zezaketen pertsona edo erakunde gehiago egon zitezkeen, bai jatorrizko pieza arruntei dagokienez, bai bereziagoei dagokienez ere, Donostian zein Donostiatik kanpora. Horregatik guztiarengatik, jatorrizko piezen jarraibidea egin eta haien etorkizuna nolabait erregulatu beharra zegoelakoan, aurreratu genuen moduan, Udalbatzari proposamena egin genion, erretiratuko ziren jatorrizko piezekin zer egin daitekeen aurreikusiz, protokolo argiak izatea inoiz soberakoa ez delakoan. Horrela edonork jakingo zuen, interesa izanez gero, nola egin behar zuen aleren bat eskuratzeko modua beti ere berdintasunean eta lagunkeria itsusietan erori gabe.

Udal Gobernuak proposamen desberdinok errefusatu arren, ondoren eta hala moduan, kudeatu behar izan zuen barandak donostiarren artean banatzeko modua, denbora luzean irizpide falta erakutsita eta piezekin zer gertatuko zen bat ere garbi geratu ez zela: zozketak, eskariak, eta gora beherak etorri ziren,...

Oraindik Loretopeako Tuneleraino iristeko zati luzea berritzea falta da eta berriz alarma gorria piztu da: duela egun batzuk herritar batek jarritako zati berriak motzak direla ohartzen zuen, barandaren muturrak ez direla harrizko zatietaraino ailegatzen eta, silikonaz betetzen ari zirela hutsuneak, gesalak azkar belztuko dituela ohartaraziz ere. Zinegotzi ordezkariaren arabera material berezia erabili da, espresuki gesalaren ondorioak eragozteko. Zatiak motzagoak izateari dagokionez, aldiz, ez zuen azalpen sendorik eman. Dioenez neurriak milimetroetan kalkulatu omen dira, baranden arteko ostikoak ez puskatzeko beroaren eraginez metalak dilatatzeko direnean. Ez da hori, aldiz, ikusten dena, bertaratu, ikusi eta konparatzera joanez gero, oraindik 100 urteko zatiak geratzen direnez aukera baitago, eta herritarrek ikusiko dutena da baranda berriak motzagoak direla.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Batzordean bertan delegatuak berak esan zuen moduan akaso lekuren batean ez dago guztiz ondo, baina oro har, bai... Akaso begiek ikusten dutena ez da horrela eta azalpen hobeak ematerik badago. Akaso hobeto egiterik badago inondik beharrezkoak ez diren soberako espazioak utzi gabe.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Kontxako barandaren obraren berritze lanetan,

- obrak duen tamainaren arabera jokatzuz, alegia, dimentsio espaziala, presupuestarioa zein sinbolikoa kontuan hartuta, berritze fisikoa egiterakoan elementu historikoak ere kontuan hartzeko, eta horretarako, gaian diren adituei galdetzeko, Kontxan kokatuak eta itsasoari begira zeuden hiru loreek beren espazioa izan dezaten dagokien lekuan.
- oraindik falta diren metro luzeetan piezek itxura egokia izan dezaten bermatzeko, segurtasuna bermatuta baina begietara motz geratu gabe.

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia